

4.DIRU SARRERAK

Diru-sarreraren egitura askotarikoa izango da, produktuaren egonkortasun ekonomikoa eta epe luzeko iraunkortasuna bermatzeko. Diru-sarrera nagusia aurikular iragazgaitzen salmenta zuzena izango da, guztiaren %70 inguru izanez. Salmenta hauek banakako bezeroei zuzenduta egongo dira, baina baita kirol-zentroei, igerilekuei, gimnasioei eta entrenamendu akademiei ere, multzokako salmenten bidez. Horrela, salmenta-bolumena handitu eta merkatuan presentzia zabalagoa lortuko da.

Bigarren diru-sarrera iturria osagarriak eta ordezeko piezak izango dira, diru-sarreraren %15 inguru suposatuz. Osagarri horien artean egongo dira belarri-euskarri desberdinak, lotura-sistema sendoagoak, kargatzeko gailuak edo ordezeko piezak. Horri esker, erabiltzaileek produktua pertsonalizatu ahal izango dute, eta, aldi berean, aurikularren bizitza erabilgarria luzatuko da, bezeroaren gogobetetasuna handituz.

Hirugarren diru-sarrera iturria zerbitzu digitalak eta aplikazio mugikorrari lotutako harpidetzak izango dira (%15). Aplikazioaren bidez, erabiltzaileek audio-ezarpen aurreratuak, entrenamenduaren jarraipena, erabilera-estatistikak eta helburu pertsonalen kontrola egin ahal izango dute. Zerbitzu hauek hileroko edo urteko harpidetza bidez eskainiko dira, diru-sarrera erregularrak eta aurreikusgarriak sortuz.

Etorkizunari begira, beste diru sarrera batzuk eduki ditzazkegula uste dugu, hala nola, edizio mugatutako produktuak, akordioak... Honek produktuaren hazkundera handiagotu dezake.